

MERTXE MUGIKA BALANTZATEGI

NEKEZ DABILEN HARRIARI...

Kezka-iturburua da euskararen erabilera. Izan ere, datuak ez dira saltoka hasteko modukoak; ezagutzarekin alderatuta, erabilera-tasak txikiak dira.

Halaber, asko idatzi eta hitz egin da erabileran eragiten duten gakoiez, ez baitago bat eta bakarra, ugari baizik: dentsitate demolinguistikoa, hiztun berrien hizkuntza-gaitasuna, euskara erabiltzeko benetako aukerak, hizkuntza-ohiturak, gaitasuna dutenek gutxiago dakitenekiko jarrera, eta abar luzea.

Plazaratuko dudan hausnarketa honetan, gako horietako batzuk hautatuko ditut, eta ahaleginduko naiz zehazten non jarri behar diren indarrak haiek aldatzeko.

Hizkuntza-gaitasuna: hizkuntza bat erabiltzeko, nahitaezkoa da gutxieneko maila bat izatea. Hala, euskara jakinda, pertsonak erabiltzeko aukera izango dute; oraindik, baina, Euskal Herriko bi biztanletik batek ez du bereganatu euskara. Horien artean, gainera, multzorik handiena helduenena da, gizartean eraginik handiena duen multzoa, hain zuzen ere.

Horregatik, komeni da horiek guztiak lehenbailehen hurreratzea euskarara. Euskaraz hitz egiteko gutxieneko maila eskuratu beharko lukete, erabilerrako traba izaten ez jarraitzeko.

Hori horrela izanik, ezagutzaren unibertsalizazioa lehenetsu dugu; ezin dugu inola ere bigarren mailan utzi Hizkuntza-politiketan. Ahalik eta *belarriprest* gehien trebatu behar dira, ondoren horiek guztiak *ahobizi* izatera irits daitezten, eta hori euskaltzaztegiaren lortuko dugu, edo ez da lortuko.

Bide horretan, halaber, euskara doan ikasi ahal izatea indartu beharreko bidea da. Azken urteotan, aurrerapausoak egin dira, eta euskara ikasteko askotariko diru-laguntzak ematen dira. Halere, oraindik ez dira nahikoak, eta laguntza batzuen irizpideak ere aztertu behar direlakoan nago. Nire ustez, eta sektoreko aditu gehienek iritzirako ere, ez du zentzu handirik diru-laguntza bat emateko aintzat hartzea azterketa bat gainditu izana, nagusiki. Erabilera bultzatu behar den aro honetan, zuzendu beharreko irizpidea dugu, eta doakotasunak orokorragoa izan behar du, hastapenetik, eta, bide batez, unibertsala; are gehiago, doakotasuna ikasteko sustapen gisa ere erabili beharko litzateke.

Belaunaldi gazteagoei begira jarrita, ukaezina da hezkuntzak euskararen berreskurapenari egindako ekarpena: hezkuntzari esker sartu da euskara etxe askotan; hezkuntzari esker hedatu da euskara urte luzez arrotzak izan dituen eremuetan. Baina dena ez da urrea. Azken ikerketek argi utzi dute egungoaz bestelako hezkuntza-paradigma bat eraiki behar dela; esaterako, EAEko ikasleen artean egindako ikerketa baten arabera, euskararen ezagutza-maila txikiagoa da orain haien artean. Ondo aztertu beharko da zergatik den horrela; seguruenik, izango dira eskolaz

kanpoko faktoreak, baina hezkuntza-komunitatean aldaketarako garaia delakoan nago. Une honetan, adibidez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege berria garatzen ari dira, hezkuntza-sektore osoaren parte-hartzeaz; bada, ea lege berriak hizkuntza-ereduak gainditzea eta murgiltze-eredu eraginkorra ezartzea dakarren. Horrela, eta aisialdian eraginez, agian lortuko dugu belaunaldi gazteek euskara-maila egokia izatea, edozein funtzio euskaraz eroso betetzeko modukoa.

Gazteak eta hizkuntza-hautuak: gero eta kezkatuago nago gazte (eta ez hain gazte) euskaldunek gaztelaniara jauzi egiteko duten erraztasunarekin, askotan haien bizitzan ohikoena eta erabiliena bihurtzeraino; are kezkatuago gero eta gazteago hasten direlako gaztelaniz barra-barra hitz egiten.

Zer egiten ari gara txarto gazte euskaldunak gaztelaniara hain erraz hurbiltzeko, zein gabezia ikusten diote euskarari baliagarria ez dela iritzeko? Bada, gauza asko. Pentsa dezagun, tartetxo batean, zer topatuko duen 15 urteko nerabe batek eskolatik kanpo; aisialdirako eskaintza, gaztelaniz gehienbat, eskolaz kanpoko jarduerak, gaztelaniz; sare soziale-tako eskaintza gehiena, gaztelaniz edota ingelesez; Euskal Telebistan, denon artean ordaintzen dugun horretan, saio ez oso erakargarriak... Halako panoramarekin, harrizkoa litzateke euskara gero eta gehiago erabiltzea!

Esango nuke arazoa zein den jakin badakigula, eta orain neurriak hartzeko garaia dela. Aisialdia euskaraz bermatzea ezinbestekoa da, eta horrek Hizkuntza-politika eraginkorraren bigarren zutabea izan behar du. Izan ere, gaurko nerabe eta gazteak izango dira etorkizuneko gurasoak, eta euskararen transmisioa haien esku egongo da, benetako transmisioa, euskara noranahikoa, gozatzekoa eta baliagarria dela aldarrikatuko duena. Hori lortzen ez badugu, orain arte bezala, hankamotz ibiliko gara.

Euskararen prestigioa: euskara erabiltzeak prestigioa behar du, baina prestigioa irabazteko ez da nahikoa kanpainak egitea; egunerokoan irabazi behar da, koherentea izanez. Esana eta izana bat etorri behar dira, euskarari prestigioa eman nahi badiogu, eta, nire ustetan, badugu zer hausnartu eta hobetu arlo honetan.

Irakurle, egin dezagun proba txiki bat: itxi begiak, eta hasi zure auzoko paisaia linguistikoa aztertzen. Nik aztertu dut neurea: *farmacia*, *frutería*, *carnicería*, *peluquería* eta horrelako hitzak dira nagusi, eta, teorian, herri euskaldun batean bizi naiz; pentsa erdaldunagoetan! Proba xumea besterik ez da, baina ederki erakusten du zein hizkuntzak agintzen duen askoren buruan.

Horren harira, zer esan dena ingelesez izendatzeko gero eta hedatuago dagoen joeraren gainean? Bada, gure konplexuaren beste adibide bat

dela, ezbairik gabe! Herri txikia gara, ados, baina guk bakarrik egingo dugu handi euskara. Zergatik ezin dugu izendatu Euskal Sukaldaritza Zentroa Basque Culinary Center? Zer ekarpen egin dio Euskal Herriko Itzuliarri Basque Country abizena gehitzeak? Eta Zinemaldia SSIFF bihurtzeak, gaztelaniz el *Zinemaldi* naturaltasun osoz entzuten hasiak ginenean? Nik neuk ez dut ulertzen; are gehiago, uste dut euskarari kaltea besterik ez diola egiten, halako izendapenek sinestarazten digutelako ekimen batek arrakasta izateko euskara ez beste hizkuntza batean izan behar dela. Ez al da izango erakargarriagoa euskara bera izatea gure bereizgarria? *Euskalonskin* agertutako hainbat kanpotar euskalduni euskarak berak hainbeste erakarri izanak ez al digu emango pistarik?

Gogoetarako auzia da, bistan denez, prestigioarena. Premiazkoa da euskararen prestigioa bermatzeko ekimenak pentsatzea eta abiatzea, eta haietan prestigiodun pertsonak eta erakundeek parte hartzea. Kanpainez gain, harago joango diren ekimenak egin eta konpromisoak hartu behar dira, egunerokoan ikusiko direnak eta bizitzako arlo guztietan eragingo dutenak. Proposamen batzuk egitera ausartuko naiz: garraibide publikoetan jartzen den musikaren % 80 euskaraz izatea; arduradun politikoak *ahobiziaz* izatea, eta egiten dituzten agerraldietan euskarak lehentasuna izatea; ETB2n, euskaldunei egindako elkarrizketak bere horretan botatzea, euskaraz, azpituak gaztelaniz jarrita...

Aurreko lerroetan, hiru gako izan ditut hizpide; laugarrenarekin emango diot amaiera hausnarketa honi: **erakundeek eta gizarte-eragileek elkarlanean eratu beharreko hizkuntza-politika integrala.** Bide horretan, ez dira falta gogoetak eta proposamenak. Urte oparoa datorkigu euskaltzaleoi: Euskaraldia, hizkuntzarekin loturiko ohiturak eta inertiak aldatzeko; 21. KORRIKA, aktibazioa eta mezu inklusiboa ardatz; Euskaltzaindiaren mendeurrena, Eusko Ikaskuntzaren Geroa elkar-ekin XVIII. Kongresua...

Horrez gain, erakundeetan ere gertatzen ari dira funtsezko gauzak, giltzarri izango direnak. Nafarroan, Euskararen Legea aldatzeko gogoeta abian da Parlamentuan; ikusteko dago zer emango duen, baina, desiragarria baino, beharrezkoa da zonifikazioa betiko desagertzea. EAEn, berriz, aztergai egongo da estatutu berrirako proposamenetan zer leku izango duen euskarak. Azkenik, Iparraldean, Euskal Elkar-goak hizkuntza-politikarako proiektua onartu du, beraz, ezartzea da hurrengo urratsa.

Oparotasun horrek guztiak batu egin behar dira, eta hizkuntza-politika integrala, ausarta eta eraginkorra abiatu, Euskal Herri osoa aintzat hartuta. Askotan errepikatu ditut hitzok, baten batzuk honezkerok nazkatuta egongo dira entzuteaz eta irakurtzeaz, baina, zoritxarrez, behin eta berriz azpimarratu beharrekoak dira oraindik ere. Dabilen harria gura baitugu, goro dio bakoa.